2026JKIR0020

Alfredo Etxeberria Murua Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia-Agencia Guipuzcoana de Infraestructuras SAko Zuzendari Nagusiak

JAKINARAZTEN DU

2026ko urriaren 30ean Bidegi, SAko Administrazio Kontseiluak erabaki hau hartu zuela:

ABIATU TAG gailua 2015eko urtarrilaren 1etik BIDEGI-n martxan dagoen ekosistema bat da. Gailuaren bertsio berri bakoitzean (gaur egun, 3.0 bertsioan) gero eta funtzionalitate gehiago gehitu zaizkio, erabiltzaileei eskaintzen zaien zerbitzua hobetzeko helburuarekin. Horrela, etengabeko garapenean dagoen sistema bat da.

Era berean, BIDEGI inbertsioak egiten ari da bide-azpiegituretako ordainsariak kobratzeko teknologietan (Free-Flow eta ordainketa-sistema kanalizatua). Horretarako, kudeatzen dituen azpiegiturak teknologiaz hornitzen ari da, bideen egoerari, bertatik zirkulatzen duten ibilgailuen portaerari eta gidatzean eragina izan dezaketen inguruneko elementu edo egoerei buruzko informazioa denbora errealean eskuratzeko. Halaber, bildutako datuak tratatzeko tresna aurreratuak ezartzen ari da.

Gaur egun, ABIATU 4.0 gailuaren hurrengo bertsioaren igortzeari begira, BIDEGI SAk kudeatzen duen bide-sarean gertatzen diren gorabeheren berri gidariei emateko alerta-sistema bat garatzea planteatzen da. Horretarako, bidesari-sistemaren ekosistema eta ABIATU TAG gailuaren funtzionalitateak zabaldu nahi dira, Back Office sistematik erabiltzaileei zuzenean alerta-mezuak helarazteko, audio bidezko jakinarazpenen bitartez.

Hala ere, gaur egun merkatuan ezaugarri horiek dituen teknologiarik ez dagoenez aurrekaririk gabeko garapen edo sistema guztiz berritzailea izango litzateke.

Alfredo Etxeberria Murua, Director General de Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia-Agencia Guipuzcoana de Infraestructuras S.A.

COMUNICA

Que con fecha 30 de octubre de 2026 el Consejo de Administración de Bidegi, S.A. acordó lo siguiente:

El dispositivo TAG ABIATU es un ecosistema que desde el 1 de enero de 2015 lleva en funcionamiento en BIDEGI, siendo que en cada nueva versión del dispositivo (actualmente en su versión 3.0) se le han ido añadiendo más prestaciones para la mejora del servicio de los usuarios, produciéndose un desarrollo constante del mismo.

De igual forma, BIDEGI está invirtiendo en tecnologías aplicadas al cobro de infraestructuras viarias (Free-Flow y Sistema canalizado) equipando a sus infraestructuras con tecnología para captar información a tiempo real del estado de las vías que gestiona, del comportamiento de los vehículos que transitan por ellas y de elementos o situación del entorno que puedan afectar a la conducción, así como herramientas avanzadas de tratamiento de los datos resultantes.

En la actualidad, y con la próxima emisión del dispositivo ABIATU 4.0, se plantea desarrollar un sistema de alerta a los conductores sobre incidentes en la red viaria gestionada por BIDEGI, S.A., mediante la ampliación del ecosistema de peaje y del TAG ABIATU, transmitiendo mensajes de alerta desde el Back Office directamente a los usuarios mediante notificaciones de audio

No obstante, actualmente no existe en el mercado la citada tecnología, siendo un desarrollo o sistema completamente novedoso sin precedentes.

Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan erregistratuta – 1973 liburukia. 215 folioa. SS-21021 orria IFK. A20783023
Inscrita en el Registro Mercantil de Gipuzkoa – tomo 1973, folio 215, hoja SS-21021 CIF: A20783023

Egoera horren aurrean, eta erabiltzaileen mugikortasuna eta segurtasuna hobetzeko helburuarekin, interes orokorreko premia horri erantzun behar zaio, berrikuntzarako elkartze-prozedura abiaraziz. Prozedura horren bidez, ABIATU 4.0 gailuaren hurrengo bertsio eguneratuan deskribatutako funtzionalitateak txertatzea bideragarria den aztertu nahi da.

Ante tal circunstancia, y con el fin de mejorar la viabilidad y la seguridad de nuestros usuarios, existe la necesidad de dar respuesta a este interés general mediante la activación del procedimiento de asociación para la innovación, con el fin de dilucidar si, en la siguiente versión actualizada del dispositivo ABIATU 4.0, se podrían añadir las funciones descritas.

Aukera horrek BIDEGI egungo merkatuan aitzindari izatea ahalbidetuko luke, eta, aldi berean, erabiltzaileei eskaintzen zaien zerbitzuaren kalitatea hobetuko luke. Izan ere, ordezko ibilbideak proposatuz, zirkulazio-pilaketak dauden eremuetan ibilgailuen kopurua murrizten lagunduko luke, baita bidean gorabeheraren bat hauteman den eremuetan ibilgailuen presentzia gutxitzen ere.

Esta posibilidad situaría a BIDEGI no sólo en una posición pionera en el mercado actual, sino que mejoraría la calidad del servicio ofrecido actualmente a los usuarios, reduciendo vehículos en zonas en las que exista retención mediante la sugerencia de vías alternativas y la reducción de presencia de vehículos en zonas donde se haya podido detectar una incidencia en la vía.

Aurreko guztia kontuan hartuta, zerbitzua HEMEZORTZI (18) HILABETEKO eperako kontratatzea proposatzen da.

Por todo lo anterior, se propone la contratación del servicio por un plazo de DIECIOCHO (18) MESES.

Zerbitzuaren behin-behineko aurrekontua SEIEHUN MILA EUROKOA (600.000,00 €) izango da, gehi EHUN ETA HOGEITA SEI MILA EURO (126.000,00 €), % 21eko BEZari dagozkionak.

El presupuesto provisional para el servicio se ha fijado en SEISCIENTOS MIL EUROS (600.000,00€), más CIENTO VEINTISÉIS MIL EUROS (126.000,00€) de 21% de IVA.

Hori guztia kontuan hartuta, BIDEGI, SAko Administrazio Kontseiluak 2026ko urriaren 30ean, eztabaidatu ondoren,

Por lo expuesto, el Consejo de Administración de Bidegi, S.A., de fecha 30 de octubre de 2026, previa deliberación,

ERABAKITZEN DU

ACUERDA

Lehenengo.- «DENBORA ERREALEAN AUDIO BIDEZKO JAKINARAZPENAK BIDALTZEKO AUKERA EMANGO DUEN ABIATU PROTOTIPOA FABRIKATZEKO ZERBITZUA (GAKOA: 2026JKIR0020)» kontratatzeko lizitazioa onartzea. Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua SEIEHUN MILA EUROKOA (600.000,00 €) izango da, gehi EHUN ETA HOGEITA SEI MILA EURO (126.000,00 €), % 21eko BEZari dagozkionak, eta kontratuaren iraupena HEMEZORTZI (18) HILABETEKOA izango da.

Primero. - Aprobar la licitación del servicio para la «FABRICACIÓN DE UN PROTOTIPO ABIATU QUE PERMITA EMITIR NOTIFICACIONES DE AUDIO EN TIEMPO REAL (CLAVE: 2026JKIR0020)», con un presupuesto base de licitación que asciende a SEISCIENTOS MIL EUROS (600.000,00€), más CIENTO VEINTISÉIS MIL EUROS (126.000,00€) en concepto de 21% de IVA, y una duración de DIECIOCHO (18) MESES.

2026JKIR0020

Bigarrena.- Kontratua esleitzeko baloratu beharreko hainbat irizpiderekin prozedura irekia eta lizitazio elektroniko xedatzea erregulazio bateratuari lotuta eta errekurtso bereziaren mende dagoena.

Segundo. - Disponer la apertura del procedimiento de asociación para la innovación y licitación no electrónica sujeto a regulación armonizada y sometido a recurso especial con pluralidad de criterios a valorar para la adjudicación del contrato.

Hirugarrena.- Kontratazio honek jarraitu beharreko Baldintza-agiri Partikularrak eta eta Baldintza-agiri Teknikoak onartzea.

Tercero. - Aprobar los Pliegos de Condiciones Particulares y de Prescripciones Técnicas que han de regir la presente contratación.

Horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, jakinarazpen hau ematen dut.

Y para que conste a los efectos oportunos, extiendo la presente comunicación.

Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia
Agencia Guipuzcoana de Infraestructuras
IFK: A-20783023
Asti auzoa, 631 - A- 20800 Zarautz

15373471H ALFREDO ETXEBERRIA (R: A20783023)
30/10/2026

Bidegi, SAko Zuzendari Nagusia / Director General de Bidegi, S.A.

Dokumentu honen sinesgarritasuna eta baliotasuna ondorengo helbidean ere egiaztatu dezakezu / La autenticidad y validez de este documento también la puede comprobar en la dirección web https://munigex.net/r/0/200/AAAABKWWL.57as